

## 25 urtean, % 25etik % 2ra murriztu dira Gipuzkoan amarengandik umearengana GIBa transmititutako kasuak



Miren Alicia Apilanez Urkiola, ikerketaren egile eta mediku-ondokoa Donostia Unibertsitate Ospitaleko Pediatria Zerbitzuko Neonatologia Sailean. ARG.: EHU.

1984 eta 2011 artean, 10 aldiz murriztu dira GIBaren bidezko infekzio pediatrikoak Gipuzkoan, zehazki, % 23,9tik % 2,4ra. GIBaz kutsatutako amarengandik umearengana gertatzen den transmisio bertikalaren datuak aztertu ditu EHUko Miren Apilanez ikertzaileak, hau da, haurdunaldian, erditzean edo edoskitzean gertatzen diren kutsatzeak.

1984 eta 2010 urteen artean Gipuzkoan jaioetako 239 ume hartu ditu aintzat ikerketak: guztien amak zeuden GIBarekin kutsatuta; umeen artean, berriz, 30 infektatu ziren birusarekin, eta 209 ez.

GIBaren historia mediko ia osoa hartzen du Apilanezek aztertutako denbora-tarteak, eta, hain zuzen ere, infekzio-datuen bilakaerak oso ondo islatzen du hori.

Infekzio-tasa handien 1984tik 1994ra eman zen, “baliabide urrikoa eta terapia

eraginkorrik gabeko aldia” Apilanezen esanean. Urte hartan, ordea, aldaketa handia gertatu zen: ACTG076 protokoloaren emaitzak argitaratu ziren, zeinaren bidez frogatu zen haurdunaldian erditzean AZT antierritrobiralak emateak transmisio bertikala mugatzen zuela, eta kutsatzeak % 23,9tik % 8ra murriztu ziren. Tratamendua haurdunaldian emanez, amaren egoera immunobiologikoa hobetzen da, eta karga biral ia hautesmanezinarekin iristen da erditzera. Ondorioz, haurra kutsatzeko arriskua oso baxua da, erditzea baita unerik larriena “haurra odolarekin eta baginako jariakinekin kontaktuan baitago”, dio Apilanezek.

Hurrengo murrizketa-neurri eraginkorra 1997an iritsi zen: haurdun zeuden emakumeei GIBaren proba egiteko protokoloa martxan jarri

zen Gipuzkoan, eta, horrez gain, terapia antierritrobiral konbinatua erabiltzen hasi zen. Harrez gero, despistajepautak eta haurdunaldiko GIB infekzioaren tratamendua hedatzeari esker, estaldura terapeutikoa % 100 izatea lortu da, eta, beraz, haurdun dauden emakumeetan garaiz detektatzen da gaixotasuna. Azkeneko, amarengandik umearengana GIBaren transmisio bertikala % 2,4ra murriztu da. Hala ere, Apilanezek nabarmendu du infekzioa amarengandik umearengana transmititzea ezin izan dutela zeharo saihestu oraindik, eta “eraginkorrek izan daitezkeen, neurri guztiak bete behar direla”.

### **Aldaera errekonbinatuekiko kezka**

Bilakaera on horren ondoren, Suediako Lund Unibertsitateko ikertzaile batzuek berriki

argitaratutako artikulu batek erakusten du GIBarekin kezkatzen segitzeko arrazoi asko daudela. Birusaren aldaera oso gaizto baten berri eman dute *Journal of Infectious Diseases* aldizkarian. Guinea-Bissauko bi aldaera ohikoenen errekonbinazioz sortu da, eta, orain arte ezagutzen diren GIBaren aldaera guztien artean, epe laburrean du infekzio gaitzaren garapenera arte: 5 urte besterik ez.

Gaur gaurkoz Afrika mendebaldean soilik detektatu dute birusaren aldaera berria, baina ikertzaileek kezka adierazi dute, migrazio-fenomeno globalen ondorioz, geroz eta gehiago ari direlako zabaltzen errekonbinatutako aldaerak. Jatorrizkoak baino gaiztoagoak izan ohi dira, eta, horregatik, arreta jarri behar zaio, ikertzaileen esanean, pertsonekin batera gertatzen ari den hedatze-eta nahaste-fenomenoari. ●